

# Ezpalak

Jon Torner

## Sanferminetan pankarta beltzak, peñei egindako erasoen aurka



IRUÑEKO hamasei peñek beltzez margotutako pankartak aterako dituzte aurtengo Sanferminetan. Pankartetan lau mezu idatziko dituzte, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez: *Adierazpen askatasuna, Peñen aurkako erasorik ez, Sanfermin herrikoia nahi ditugu eta Sanfermin parte-hartzaileen alde*. Egitasmo historiko horren zioa argia da: Udalaren (UPNren) jarreraren kontra protesta egitea, eta festa parte-hartzaileagoak aldarrikatzea.

## Azkena Rock jaialdiak 10 urte



AZKENA ROCK FESTIVAL (ARF) jaialdiak 10. urteurrena beteko du aurtengo. Ekainaren 24tik 26ra egingo da Gasteizko Mendizabala parkean, Mendizorrotzako kiroldegia

ondoan. Talde ezagun askok parte hartuko dute aurtengo edizioan. Horien artean daude, besteak beste, Kiss, The Jim Jones, Bob Dylan, Gov'T Mule, Airbourne, Audience, Robert Gordon eta Bad Religion. Hiru egunetarako bonoak 90 euro balio du, osteguneko sarrerak 35 eta ostiral eta larunbatekoek berriz, 48 euro.



**Kevin Herediak** estreina-konoba plazaratu du: *Hor hago Kevin?* Meettok argitale-txeak kaleratutako liburu horrekin eman du Herediak irakurle izatetik idazle izate-rako behin betiko jauzia. Bizitza errealearen kronika bat da, errealtateak fikzioa gainditzeko duenaren frogagarria. Azken urteotan literaturari buruzko zutabeak idatzi ditu Kevin Herediak *Berria* egunkarian.



**Baionako artxibo** berriak orain arte Pauen zeuden Ipar Euskal Herriko hainbat eta hainbat dokumentu biltzen ditu. Zehazki, 2,5 kilometro dokumentu ekarri dituzte Biarnoko hiriburutik eta horrez gain beste herriko etxeetako eta erakundeetako funtsak ere biltzen hasiak dira.

**Iban Zalduak** *Ipuinak*. *Antologia bat* (Erein) liburua kaleratu du. Bertan, bere ipuinen artean “onenak edo esanguratsuenak” bildu ditu. Zalduak bere lehenengo liburua duela 20 urte kaleratu zuen eta euskaraz idatzitako lehena duela hamar. Xabier Mendiguren Elizegik, bestalde, gazteei zuzendutako *1.002. gaua* (Pamela) abentura liburua argitaratu du.

● **Haritz Rodríguez kazetariak Tokitan.tv bidaia bideobloga sortu du. Zera esan du *Berrian*:** «Bidaia txikientzako abentura handiak konstatzen dituen bloga da Tokitan. Duela urte eta erdi kamera semiprofesional bat erosi eta horrekin probatzen hasi nintzen. Lehen bidaia iaz egin nuen Grezian, itsasoan. Ideia da jendeari helaraztea superheroiak izan gabe, gure txikitasunean, abentura propioak izan ditzakegula. (...) Atal bakoitzaren iraupena, batez beste, bost minutukoa da». *Berria* edo oreinen ugalketa erritulari buruzko bideoarekin –Sorien (Espainia) grabatua– hasi du bidaia Rodríguez. Astero bidaia berri baten bideoa sareratu du.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)